



KULTURAKO 2025EKO PLAN ESTRATEGIKOARI BURUZKO EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

1. Aurrekariak

Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15ko Erabakian aurreikusitakoarekin bat etorritik (XII. Legegintzaldirako Jaurlaritzaren plan estrategikoen zerrenda eta izapidetze-prozedura onartu zituen akordio horrek), plan estrategiko bat Gobernu Kontseilura bidali baino lehen, sail sustatzaileak Planaren proposamena helaraziko dio Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari (EPZ), honek plangintzaren arloan esleituta dituen eginkizunetan eragina duen edozein alderdiri buruzko iritzia eman dezan.

Analisi ekonomikoarekin eta politiken aurreikuspenarekin, plangintzarekin eta jarraipenarekin zerikusia duten EPZaren funtzioei zuzenean dagozkien Planaren edukiei dagokionez, egokitzen da jarraian jasotzen diren oharra egitea.

2. Kontsiderazioak

Lehenik eta behin, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila azpimarratu eta zoriondu behar da, 2025eko Kulturaren Plan Estrategikoa barneko baliabideak erabiliz egin duelako. Aurkeztutako Planari buruzko iritzi orokorra sektorearen panorama zabala eta planteamendu operatiboa eskaintzen dituela da, Gobernu Programarekin eta Europako esparruarekin lerrokatuta, gobernantza- eta jarraipen-sistema parte-hartzaile eta oso batekin. Hala ere, egokitzen da honako gogoeta hauek egitea:

- Planaren hedapen estrategikoa nahasgarria izan daiteke esku hartzeko ardatzak helburuak baino lehen definitzean, azken horiek izanik jarduera-ildoetan hedatzen direnak.

Lehenik eta behin, helburu estrategikoak formulatu behar dira – zer lortu nahi dugun –, eta, ondoren, helburu horiek lortzeko ardatz eta jarduera-ildo nagusiak ezarri behar dira – nola egingo dugun –. Bestela esanda, eta egitura orokor gisa, estrategia bat planteamendu orokorrenetatik abiatuta egituratu behar da (misioa-ikuspegia-helburu estrategikoak), eta mailaka zehaztu behar da aurreikusitako esku-hartzea (ardatzak-jarduera-ildoak-akzioak).



- Aurkeztutako planean, kultura-politikak egituratzeko proposatzen diren ardatz nagusiak – kulturaren sorrera, eskaintza eta transmisioa – bat datoz lehen hiru helburu estrategikoekin, eta horiei zeharkako laugarren helburu bat – jauzi digitala – gehitzen zaie. Formulazio hori kontuan hartuta, gure ustez, lehenik eta behin helburu estrategikoak ezartzea eta, ondoren, politikak ardatz eta jarduera-ildoetan hedatzea ez da funts-aldaketa, forma-aldaketa baizik, baina garrantzitsua iruditzen zaigu eskatutako egitura orokorra hartzea, plangintza estrategikoa normalizatzeko eta planak ulertzen laguntzeko.
- Plana gauzatzeko aurreikusitako baliabide ekonomikoak behar besteko xehetasunez aurkezten dira, eta Aurrekontu Zuzendaritzaren aginduzko txostenari lotzen gatzazkio, programetan duten banakapenari dagokionez.
- Planean jarraipenerako ezarritako adierazle-sistemari dagokionez, koadroak honako bost zutabe hauetan egituratzea gomendatzen da: adierazlea (ondo zehaztua), neurria (kop., %, Bai/Ez, euro,...), iturria, hasierako balioa (urtea adierazita) eta helburu-balioa (2025erako, kontrakoa adierazi ezean).

Adibide gisa:

ADIERAZLEA	NEURRIA	ITURRIA	HASIERAKO BALIOA	2025-RAKO HELBURUA
Euskal kultura-proiektuak atzerrian	Kop.	Etxepare Institutoa	987 (2021)	1.300
Parte-hartze kulturalaren indizea euskaraz	%	Kulturaren Euskal Behatokia	24,9 (2018)	30
Alde biko programak garatzea	Nº	Etxepare Institutoa	0 (2021)	3 (2024)
Arte Ederren Museoa Eraberritzea	Bai/Ez	Kultura Sailburuordetza	Ez	Bai (2024ko urtarrila)
Enpresa kulturalak	%	Kulturaren Euskal Behatokia	4,6 (2020)	5
Enpresa kulturalak	Kop.	Kulturaren Euskal Behatokia	7.149 (2020)	7.600

Zehazki, goian egindako proposamenarekin bat etorritz, aurkeztutako adierazleei dagokienez, honako hutsune puntualak antzeman dira:



- Planaren denbora-horizontea 2025. Urtea dela uler badaiteke ere, helburuak lortzeko aurreikusitako data adierazle-koadro bakoitzean zehaztu beharko litzateke, behar diren salbuespenak adierazita (Arte Ederren Museoa eraberritzea etab.).
- *Kulturaren sektoreak BPGan duen parte-hartzeari eta Emakumeek sortutako kultura-ekoizpenaren ehunekoari* buruzko adierazleek ez dute abiapuntuko daturik, eta 2023tik aurrerako datuak izatea espero dela ohartarazi da. Hala ere, helburu zehatzak finkatu dira. Helburu horiek erreferentziazko balio baten arabera finkatu behar dira, eta, kasu honetan, 2023ko balioen arabera izan beharko lirateke; beraz, zenbatespenik ez badago, ez da egokia helburu zehatzak aurreratzea.
- *Kultura-enpresen /KSI/enplegua kulturaren guztizkoaren gaineko ehunekoa* adierazleetan, balio absolutuak ezabatu beharko lirateke, eta hasierako balioak eta helburuak ehunekotan bakarrik adierazi. Balio absolutuak ere aipatu nahi izanez gero, aparteko adierazle bezala egin beharko litzateke (ikus adibideak), eta jakitun izan bien artean kontraesana egon daitekeela, ehunekotan adierazitako adierazleak enpresen edo enpleguen guztizko kopuruaren bilakaeraren arabera baitira.
- *Berrikuntza-programetan parte hartzen duten enpresak, Kultura-ondare gisa babestutako elementuak eta Liburutegi-sareko erabiltzaileak* adierazleetan, hasierako datuaren urtea zehaztea falta da.
- 2023ko aurrekontuak egiteko, Planaren adierazleak eta urteko helburuak ardatz estrategikoei lotuta dauden aurrekontu-programen memoriara eraman beharko lirateke, era honetan diseinatutako neurrien eraginkortasunaren jarraipena eta ebaluazioa erraztuz, eta, beraz, plangintza- eta aurrekontu-prozesuen hobekuntza erraztuz.
- Azkenik, alderdi formal gisa, diagnostikoaren ataleko hainbat koadro eta grafikori ezinbesteko hiru erreferentzia falta zaizkiela adierazi behar da, hala nola izenburua, neurri-unitatea eta/edo iturria..